

Euskal AEko industria-jarduera % 4,7 murriztu da 2023ko uztailean


Aurreko hilaren aldean, produkzioa % 2,7 jaitsi da

Euskal AEko industria-produkzioa, lan-egutegiko balio homogeneousetan, iazko hil berean baino % 4,7 txikiagoa izan da 2023ko uztailean, Eustaten datuen arabera. 2023ko lehen zazpi hiletan metatutako produkzioa iazko aldi metatu berean baino % 0,7 txikiagoa izan da.

2023ko ekainarekin alderatuta, Euskal AEko industria-jarduera % 2,7 murriztu da azken hil honetan, dagozkion urtaro-eraginak zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen xede ekonomikoaren arabera, *Energiaren* produkzioa % 14,2 jaitsi da 2023ko uztailean, urtetik urterako balioetan adierazita. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura, eta petrolioaren fintzea.

Bitarteko ondasunetan (metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa; industria kimikoa, eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa) ere jaitsi da produkzioa, % 5,5eko aldakuntza negatiboarekin.

Ekipo-ondasunen produkzioa (ibilgailu motordunen fabrikazioa; tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza, eta aireontziak edo itsasontziak egitea) % 0,8 murriztu da iazko uztailearekin alderatuta.

Kontsumo-ondasunek ere urtetik urterako portaera negatiboa izan dute 2023ko uztailean, eta ekoizpena % 0,8 murriztu da sektore osoan. Jaitsiera hori *Kontsumo-ondasun iraunkorren* portaeraren ondorio da, % 15,0 murriztu baitira. Besteak beste, altzarien eta etxeko aparatuen fabrikazioa sartzen da epigrafe horretan. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* produkzioa, aldiz, % 2,9 igo da. Besteak beste, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak; garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa; farmazia-produktuak, eta jantzigintza daude epigrafe horretan.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Uztaila 2023

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	-4,7	-0,7	-2,7
Araba/Álava	-4,6	0,4	-3,8
Bizkaia	-2,4	-0,1	-3,4
Gipuzkoa	-6,7	-1,8	-1,3
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-0,8	1,7	-3,7
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-15,0	-9,3	-0,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	2,9	4,5	-4,4
Ekipo-ondasunak	-0,8	1,9	-3,4
Bitarteko ondasunak	-5,5	-0,4	-2,7
Energia	-14,2	-10,1	-4,2

(p) Behinbehineko datuak

m/m-12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarrietik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2023ko Irailaren 7a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Xehekiago adierazita, 2023ko uztailean, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, *Elikadura-industria*, *edariak eta tabakoa* eta *Garraio-materiala* baino ez dira hazi urtetik urterako balioetan, %0,5 eta % 4,4ko gehitu baitira, hurrenez hurren. Aitzitik, urtetik urterako balioetan adierazita, produkzioa sektore hauetan jaitsi da gehien: *Energia elektrikoa*, *gasa eta lurrina* (% 17,0ko jaitsiera), *Kautxua eta plastikoak* (% 11,9ko jaitsiera) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 8,1eko jaitsiera).

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Uztaila 2023

	m / m-12
Elkadura ind., edariak, tabakoa	0,5
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-8,1
Kautxua eta plastikoak	-11,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	-6,3
Materialia eta tresna elektrikoak	-2,5
Makineria eta tresneria	-1,8
Garraio-materiala	4,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-17,0

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2023ko Irailaren 7a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2023ko uztailean, Industria-produkzioaren indizeak urtetik urterako bilakaera negatiboa izan du hiru lurralde historikoetan. Iazko uztailaren aldean, Gipuzkoan, % 6,7 jaitsi da produkzioa; Araban, % 4,6, eta, Bizkaian, %2,4.

2023KO UZTAILEKO BALANTZE METATUA

Urteko lehenengo zazpi hiletako metatuan, Industria-produkzioaren indizea % 0,7 jaitsi da, *Energiaren* % 10,1eko jaitsieraren ondorioz. *Bitarteko ondasunek* ere bilakaera negatiboa izan dute, iazko aldi beraren aldean % 0,4 jaitsi baitira. *Ekipo-ondasunetan*, ordea, uztailera arte metatutako produkzioa % 1,9 hazi da, eta *Kontsumo-ondasunetan* % 1,7.

Lurralde historikoen arabera, 2023ko lehen zazpi hiletako metatuak balantze positiboa izan du Araban, % 0,4 hazi baita. Bizkaian % 0,1 jaitsi da produkzioa, eta Gipuzkoan % 1,8.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren % **82,62**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62